

Donostia, 2021eko azaroaren 30a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

PROPOSAMENA OSOKO BILKURARI, SILVA MUÑOZ MINISTRO FRANKISTARI HIRIAREN URREZKO DOMINA KENTZEKOA

Elkarrekin Donostia eta EH Bildu udal-taldeetako zinegotziek, Osoko Bilkuraren Araudi Organikoaren 90. artikulua oinarri, PROPOSAMEN hau egiten diote Osoko Bilkurari, Silva Muñoz ministro frankistari hiriaren urrezko domina ken dakion.

JUSTIFIKAZIOA

Oroimen Historikoaren 52/2007 Legeak 15. artikuluan xedatzen duenez, “Administrazio publikoek, beren eskumenak betez, altxamendu militarren, Gerra Zibilaren eta Diktaduraren errepresioaren inguruko armarriak, intsigniak, plakak eta, modu pertsonalean edo kolektiboan, garai hura goraiatzan duten beste objektu edo aipamen guztiak kentzeko berariazko neurriak hartuko dituzte”.

Udalbatzak, Irabazi Donostiak proposatuta, honako hau onetsi zuen 2017ko irailean:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari aktiba dezala Donostiako Udalaren Ohore eta Goraipameneren Araudia aldatzeko prozedura, Oroimen Historikoari buruzko 2007ko abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 15. artikulua oinarritzat hartuz, Donostiako Udalak Francoren diktaduran emandako sariak eta ohoreak kentzeko bidea izan dadin.

Urtebete geroago, Udalbatzak aurreko urtean osoko bilkuran hartutako konpromisoa berretsi zuen, honela:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari aktiba dezala Donostiako Udalaren Ohore eta Goraipameneren Araudia aldatzeko prozedura, Oroimen Historikoari buruzko 2007ko abenduaren 26ko 52/2007 Legearen 15. artikulua oinarritzat hartuz, Donostiako Udalak Francoren diktaduran emandako sariak eta ohoreak kentzeko bidea izan dadin

Bi aldietan adierazi zen beharrezkoa zela sarien eta ohoreen araudia aldatzea. Gure ustez, 2007ko Oroimen Historikoaren Legea udal-araudiaren gainetik dago, eta, alde horretatik, argi dago ezinbestekoa dela presaz jardutea.

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90. artikulua oinarri, osoko bilkurako zinegotzien herena ordezkatzuz, honako hau proposatzen dugu:

PROPOSAMENA OSOKO BILKURARI

1. Udalbatzak erabakitzen du hiriaren urrezko domina kentzea Federico Silva Muñoz ministro frankistari.

Sin. Aitzole Araneta	Sin.: Haizea Garay	Sin.: Marta Huarte
Elkarrekin Donostiaren bozeramailea	Elkarrekin Donostiako zinegotzia	Elkarrekin
Donostiako zinegotzia		

Reyes Carrere Zabala	Jon Markel Ormazabal	Olaia Duarte López
EH Bilduko zinegotzia	EH Bilduko zinegotzia	EH Bilduko zinegotzia

Ricardo Burutaran Ferré	Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego	Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bilduko zinegotzia	EH Bilduko zinegotzia	EH Bilduko zinegotzia